

Goibeko kale
ELGETAKO ALDIZKARIA

997ko urtarrila, 20zk.

IKURRINARI BAI

Maderas Gallastegi, s.a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta cruzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobrean *Goibekokale* ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.

Noiz hasiko ga zoeze eitten?


Norberak eñ nahi dittuan gauzei denporia emoteko, beti etaratzen dogu astixa ez daon lekutik. Dantzan ikastia nahi dabenak ikastarobatian izena emongo dau, berba eitten gustora diharduana beti egongo da bateronbatekin barriketan, *Goibekokale* hilero irakurtzen dabenak gustura idatziko zeban gaizki pentsau jakon zoezerran kartia, hautzez betetzen dakazen argazkixei begirada bat botako dotze grazia dakanen bat bialtzeko, galdera bat eittera etorri ezkerobatian erantzungo leuke, eta besteik ez bada hilerolehiaketara idatziko dau... Nik behintzat hala ikusten dot.

Hala ta be, gero ta jente gehixau dago pasotismuan harixan, jente askoi ez jako ezeria gustatzen, berdin jakue munduan, herrixan, zer pasatzen dan. Horrei bardin jakue gaurko egunkarixak zer dakarren, berdin jakue herrixan txapelketa edo hitzaldin bat dagon, ... bardin izango jakue ere *Goibekokale* etaratzia. Hartuko dou egunen baten zoezetan parte? Bakotxak bere iritxiza ez dau euki bihar? Zegaittik ez dotzau alkarri laguntzen, danon artian zoezer lortuko dou ta.

Goibekokale etaratzia ez da elkarlana?

Nik hori uste dot, baina zegaittik gertatzen da galderan bat eittera urten eta jentiak ihes eittia? Betiko aittakixak: "berandu najabik", "galdera horri nik ez jakixat zer erantzun", "autobusak ospa eñ bihar jostak", ... eskerrak danok ez gazela holakuak, ta ez doula paso eitten. Danok ez ga, (zaie) holakuak ta erakusten dozue, argazkixak bialtzen, galderei erantzuten, laguntzia emoten...Zuek, alero-alero laguntzen dozuenok, zuek eitten dozue *Goibekokale*, eskerrak besteik ez dakat zuendako, zuek euki dozue ta, astixa ta gogua gure galderekin minutu pare bat galtzeko. Zuek erakusten dozue *Goibekokale* hilero etaratzia danon lana dala.

Oxel Erostarbe Tubilla



Estampaciones

Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.

Zorionak Maisuari



Argazkietatik ezagutu nuen begiratu argiko aitita gizon prestu hura. Xumea eta behargin fina izan behar zuen. Arotza lanbidez. Andre on bat hartu zuen, berau ere langile eta saiatiua. Jostuna; etxeoandre eta jostun.

Emakumea lanera joatea gure garaitako iraultza delakoan? Bai zera! Gure amonei eta amei galdetu behar! Baina noan harira.

Bi seme izan zituzten eta semetzako hartu hirugarren bat. Patua izango zen edo garai haietako kalamidaderen bat, halabeharra inondik ere, kontua, euren sortutako bi semeak hil eta hirugarrena bakarrik geratu zitzaiera. Urte gutxi batzuren buruan arotzak eskuturra galdu zuen lanean eta bere bihotzeko emazteaz alargundu zen. Entzutera dugunez goian zerua eta behean lurra gelditu zen. Gelditu ziren, aita eta semea.

Ez dakigu bihotzeko saminak nola gaindituko zituzten. Apenas iritsi zaigu garai gordin haietako konturik. Oraintsu arte ez dugu jakin noraezean galduta ibili zirela eta baserriko amama batek hazi zuela mutikoa, bizimodua berri zuten arte.

Alaitasuna itzuli bide zen familiara eta bizitzak bere legeari eutsi zion. Mutikoa kozkortua zen. Eta gizondu zen. Gerra-denbora, gerraostea, ezkontzeko sasoia, urte luzetako langabezia eta gurasoak, andrea eta seme-alabak elikatu beharra... (Gure garai-ko gaitzak direlakoan?) Arbasoen heriotza eta tristorak ezagutu zituen eta ondorengoen beste gerra batzuk... Eta garai haien gainean ere umetako denborei ezarritako isiltasuna bota zuen, atsekabe sakonaren estalgarri.

Maltzurkeriari muzin egin, ezinari kemenarekin begiratu eta gogorrean beti aurrera egin behar dela izan da iritsi zaigun ikasbidea. Hitzez eta eginez.

Guk haren maila iritsiko dugun ikusteko dago baina bere 80. urtebetetzean ZORIONAK zor dizkiogu. Bihotzez.

Beatriz Zabalondo

Gora-Beherak



Gora-beheraka pasa zaigu iazko urtea, gorakada bati beherakoa lotu zaiolarik, gogoen kontra eta alde, baina dena garrantziz jantzita.

Gorenengoak. Bai San Migel gora joan zitzaigun eta beherantz, bueltan, ez. Aitzitik, Elizamendiko Ama-Birjina behera bai baina gorantz ez. Beharbada, zeruaren laguntza ere behar harko dugu mendi magaleko lur labanak brintzaerazitako horma zaharrak jaso ahal izateko.

Sindikatuak. Horren hormak ere zaharrak izan eta deskuidatzen bagara, Gaztetxia behera medikuarekin batera. Beste eraikuntzaren bat gora behar eta ea suertatzen den Gariketxia.

Asentzio. Handik behera, gehiegi miaztu gabeko bide ertzean, batu genituen zaborrak ezkutatzeko asmoz edo, gora jaso nahi duten horma berriak aurrera jarraituko duenaren beldur gara, gure txikitasuna haundikeriz tapa nahiaren islada ote den.

Trena. Burdin bidean gora, miloika urtetan zehar eraturiko harri zaharrak jan nahian eta lurmutur guztiak zulatuz abiadura haundiz etorriko ei da hiritik. Baina lurmuturrak letxe, zulatu, gure poltsikkoak egingo dira Bailarako biztanleonek bakea goitik behera etorri ahala.

Ez dakit ba, "gutxi izan, asko uste: sasipeko masuste" esaera hura ere egokia ez ote den handikeriak hain gogoko dituzten politikariak goitik behera jantzi ahal izateko.


Ura. Masustak hazteko edo, goitik behera, pasa den urteak berrehun egunetan zehar Bailara honetan bota dizkigun urak.

Eta taberna asuntoan sarturik.

Pagomendi. Emakumeen aldeko botoak gora, kontrakoak behera. Elkarteak izanik, berez, gizasemeok elkartzeko, zein emaitza hoberik?

Afaria. Urtea amaitzeko, Bailarako Batzarrak Pagomendi elkartearen eginikoa. Behera basurdia? ba gora kazuelia!. Eta mahaikideen artean bai goikoen eta baita behekoen ordezkariak: Abadia eta Alkatia. Hauei eman genien gelditzen zen saltsa: Behera Bailaria? ba gora makilia!

Jose Anjel Arriaran



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Saratsua eta Iker Irazabal. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Beatriz Zabalondo Loidi eta Jose Anjel Arriaran. **Administrazioa:** Esti Retolatza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Villa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 600 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538. **Goibekokalek** ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailearen laguntza. En la edición de esta publicación colabora.

kutxa fundazioa fundación

ELGETAK BAIETZA IKURRINARI

- 20 urte dira Elgetako udaletxeak baietza eman ziola Ikurrinari -

San Sebastian bezperan Euskal heriko hainbat udaletxetan bezala, ikurrina onartu zen Elgetan. Egun horretan, 1977ko urtarrilaren 19an arratsaldeko zazpietan plenoa egin zen udaletxean.

Gerra zibilaz geroztik ez zen jaso Euskal Herriko udaletxetan ikurrina. Baina 1977ko uztailearen 19an udaletxe eta etxeetako balkoi eta leihoetan altxatu ziren ikurrinak.

Elgetan egun horretan arratsaldeko zazpiak zirenean udal batzar berezia egin zen. Han bildu ziren udal agintariak eta baita herritar ugari ere.

Garai haietan ere, alkateztan Patxi Basauri zegoen. Zinegotziak Txomin Askasibar, Pedro M^a Ubera, Ramon Zabala, Javier Telleria eta Fakundo Sarasketa ziren. Idazkaria, Zabala jauna zen.

Egun honetako gairik garrantzitsuenak, "ikurrinaren mozioa", izendatu zen. Alkateak, ikurrinaren mozioa aurkeztu zuen udalbatzaren aurrean eta aho batez onartu zen.

Jarraian udal batza balkoira irten zen eta Pedro M^a Ubera zinegotziak ikurrina igo zuen. Bertan bildutakoan artean ospatu zuten afari eta guzti

Ikurrina tabernaz taberna erabili zuten gau partean eta biha-



1977-ko urtarrilaren 19an hauexek ziren udal mahaia osatzen zutenak: Ramon zabala, Javier Telleria, Fakundo Sarasketa, Patxi Basauri, Pedro M^a Ubera eta Txomin Askasibar. Idazkaria Zabala jauna zen.

ramunean ez zuen itxura onik hartaz kargu egin zirenen hitzetan.

Martin Villa

Rodolfo Martin Villa orduko Gobernazio Ministroarekin bildu ziren Arrasate, Oiartzun, Azkoitia, Hernani eta Bergarako alkateak Madrilen. 30 herri ordezkatzaren zituzten alkate haiek ikurrinaren legalizazioa eztabaidatu zuten Martin Villarekin. Ondorioz ministeritzak onartu egin zuen ikurrinaren erabilera eta exhibizioa.

1976ko maiatzean, Manuel Fragak, orduko Gobernazio ministro zela, zera esan zuen: "Bandera hori erakustea baimendu aurretik nire gorpuaren gainetik pasako dira".



Hemen daude alkateen mugimenduko kideak izan ziren alkate batzuk, bilera baten ondoren. (Argazkia Epelde).

IRAMA
Instalazioak eta mantentze lanak



24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatua: 247262 tel:
789057-768025

Bandoi Bolinaga
METALAK
FS7 18
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

HB-k EZ DU GAZTE ETA KIROL BATZORDEA UTZIKO

- Batzorde honetan lan egiteko dituzten arazoak salatzen herri bilera antolatu zen -

Elgetako HB-k urtarrilaren 16an, egunez, egindako herri batzarrean, kirol eta gazteen batzordea ez uzteko erabakia hartu zuen. Batzar honetara hurbildu ziren herritarrei beraien batzordean lana egin eta hartutako erabakiak errespetatzen ez direla adierazi zuten. Beraien asmoa ez da "plenoaren gaintik egotea" baizik eta beraien "lana errespetatzea".

Batzar honetan komisioak nola funtzionatzen duen azaldu zuten: "komisio bakoitzak urtero eta kasu honetan Kirol eta

Gazteenak ere, ekintza desberdinetarako diru kopuru bat du banatzeko; diru hori banatzeko, eskaerak udaletxean aurkezten dira eta ondoren komisioak aztertu egiten du eskaera bakoitza. Komisioak ez du azken erabakia hartzen baizik eta plenoak.

Aurreko agintaldian zehar eta pasadan urtean ere komisioarekin kontatu gabe dirua eman zela esan zuten. Egoera hau ikusita bildutakoei iritzia eskatu zieten. Erantzuna erabatekoa izan zen jarraitzearen alde.

Ihauteriak

Gainontzeko herrietan ihauteriak aste guztian zehar ospatzen badira ere, Elgetan otsailaren 7an, barikuan, jendea animatu nahi da disfrazatzeko. Gaztetxea eta tabernak mozorrotzeko asmoa dago. Gaztetxean jaialdia antolatu da. Ekimen hau herrian ihauterietan giroa sortzeko egin da.

Atun latak Saharako

Gipuzkoako beste udal batzuen ekimenarekin batera, atun latak bilduko dira udaletxean, Sahara herrira laguntza bidaltzeko. Latak 250gr-koak izan behar dira eta oliotan sartutako atuna bada askoz hobeto. Epea otsailaren 6a da eta udaletxeko gizarte zerbitzuan utzi beharko dira.

Motor topaketa

Otsailaren 15-16ko asteburuan eta ohitura bilakatu den honetan, "Moto Club Arrate"-ko kideek, motor-topaketa antolatu dute Elgetan. Partehartze handia espero dute. Gogoratu polikiroldegiko aparkalekuaren zati bat motorentzako erretserbatuko dela.

Inuzente guztiei

Guk bai nahi 200.000 pta tokatzea. Bazkari bat baino gehiago egingo genituzke. Dena den apuntatu zineten guztioi **Inuzente**. Hala ere egun horretan ideia hartu eta mariskoa gure ohoretan jan zuenik ere egon omenzen.

GABONETAKO JAIALDIA



Gabonetako ekitaldien barruan antolatutako kontzertuak 200 pertsona inguru bildu zituen polikiroldegian. Musikaren inguruan egin zen jaialdia. Ozkarbiko koraak, eskolako umeak, Bergaran ikasten

daudenak eta Adolfo Jainagaren ikasleak akordeoiarekin izan ziren beste batzuen artean. Balantzea egiteko orduan, aurreko urteetakoa hobia izan zela gaineratu zuten antolatzaileek.



GRONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.
Tfnoak: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

BILTEGI
DENDA

Zugandik gertu behar duzun beste

Salbador 24 Tel: 768206

EUSKAL PRENTSA KINKA LARRIAN

Urtarrilaren 17an donostian bildu ginen 44 aldizkarik eta Egunkariak euskal prentsaren egoera larria salatu genuen. Aldizkariak izan baino 14 milioi gutxiago jasoko dituzte aurten. Euskaldunon Egunkariak berriz ez du igoyerarik izango. Azken asteotan Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diru gehiago eman duela ziurtatzen duen bitartean, datuetan ez da horrelakorik jasotzen.

1989. urtetik ez da hain diru gutxi banatu. 1995ean, 39 aldizkariaren artean 80 milioi banatu ziren eta 1996an 34 aldizkariaren artean 65 milioi banatuko dira.

Euskal prentsako kideen esanetan "garrantzitsuagoa da milioi batzuen gora-beheran eztabaidan jardutea baino, arazoaren muiari heltzea".

Goibekokale

Donostian izan zen egoera hau salatzen. Gure kasuan jeitxierarik ez bada egon ere euskal prentsak gizartearen betetzen duen funtzio hori galduko denaren beldur gara.

Elkarlanerako prest

Euskal prentsaren ordezkarien esanetan" ez dugu Jaurlaritzaren



Euskal prentsako ordezkariak urtarrilaren 18an egindako prentsaurrekoan *Goibekokale* ere bertan izan zen. Diru laguntzak beharrezkoak dira 44 aldizkari ateratzeko eta Euskaldunon.Egunkariak ere behar hori du. (Argaz: Ander Gillenea).

ren politika desegokia salatzena mugatu nahi. Euskal prentsaren egoerari buruz gogoeta egin eta euskal prentsaren normalizaziorako bidean eman behar diren pausoak aztertu baino. Elkarlanean ari-zeko borondatea dugu agiri hau sinatzen dugunok".

AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEKOAK DEITUTA INTXORTAN



Urtarrilaren 5ean bildu ziren Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituta, Elgeta, Bergara, Angiozar, Arrasate eta Elorrioko jendea.

Goizean heldu bezain pronto elur artean salda eta sagardoa hartzeko aukera izan zuten. Bergara eta Arrasatekoek txalaparta jo zuten. Ondoren bertolariak egon ziren. Jarraianegin zen hitzaldian, lehengo eta gaurko gudariez hitzegin zen.

Batzordekoek esan zuten argazki hau Egin egunkariko portada bihurtzen dute artikulu baten laguntzarekin. Argazki hau bildutako herrietako presoiei bidaltzen zaie.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

**EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA**

San Bixente eta Txakolina

Urtarrilak 19an ospatu zuten Parteitxiarrek zaindaria duten San Bixente jaia. Berez hogeita bian da eguna baina asteguna suertatzen denean aurreratu edo atzeratu egiten dute kanpoan bizi direnak ere urreratu daitezen.

Urtero lez giro ezin hobea sortu zen Zabarteko atarian. Meza azkarraren ostean, denak ondo bedeinkatuta, Txinparta taldearen doinuek inguruok beterik salda eta txorixorako gonbidapena egon zen.

Ez zen faltatu urteko zitara Kataideko Txakolina. San Anton inguru hau egokitzen da alde guztietan horretarako, eta Getarian ere aurkezpenak egin bazituzten ez

zen gutxiagorako izan Deba Garaiko mahasti hauen emaitza. Dastatzeko aukera izan zuten guztiek kalitate ezin hobez ohartu ziren: Aurkezpen dotorea, dagokion botela, etiketa landua... Kolore eta zaporea bikainenetakoa, edateko erraza, halako ardu bati eskatzen zaion pikante puntutxo horrekin. Kalitateak ez du "Denominación de Origen"-aren babesik behar batzutan.

Azken urtetan indarra hartuz doa San Bixente jaiak Deba Garaiko Txakolin honen aurkezpenarekin lotuta. Eskerrak oraindik jendea neurrian inguratzen dela bertara!

Santa Ageda eskean

Santa Ageda eskean urten-go dabe Angiozarko eskolako umeak datorren otsailaren 4an. Baserriz baserri ibiliko dira goizez eta arratsaldez kalera inguratuko dira,

bostak eta erdietan izango duten ipuin kontakizunera.

Ez da lehen aldia Santa Ageda eskean urtengo dabena, urtetan galduta egon zan ohitura izan da hau, baina azken sei urtetan eskolako umeek berreskuratu dabe. Karnabal jaien inguruan beroketarako ariketa ederra izango da, Karnabaletan be ez dira atzera gelditzen eta antzerki, mozerro eta kalejiretan umiok.



Iazko Santa Ageda eskean Angiozarko eskolameak.

Pello Añorga kontu-kontari

Santa Ageda bezpera boboltzeko, arratsaldeko 5:30etan eta Saloian, Pello Añorga ipuin kontalaria izango dogu guztion gozamenerako. Ez da lehen aldia Pello Angiozarren izan duguna, bere ipuinekin aho zabalik aurrez be egonak gara eta. Oraingoan ere ez dago dudarik entzulea txunditzeko aukera ez duela galduko.

Ipuin kontaketa hau Angiozarko Liburutegiak antolatuta dago eta gogoratu, Santa Ageda bezpera martitzenean tokatzen dela aurten.

San Sebastian Kofradia

San Sebastian egunean urteroko errituala bete zuten San Sebastian Kofradia osatzen duten kideek. Lehenik meza eta ondoren bazkaria urteari errepasoa emateko mahai inguruan. Hemezortzi lagujn elkartu ziren aurten, eta esan beharra dago 506. urtea izan dela aurtengoa Kofradia honentzat.

Urtebetetzeak


Egun gutxiko tartearekin Bixenta Inzak eta Sebastiana Garitanok urteak bete dituzte. Bixentak 94 eta Sebasek 92. Bixenta sukaldari bikaina izandakoa dugu Angiozarren, Jakobeneko tabernan eta baita inguruko ospakizunetan. Sebas, bestalde, jostuna izan da, beste hainbaten maistra eta oraindik ere jostorrazari haria sartzeko lotsarik ez duena.

Elkarrekin lehengusuak dira biak gainera, kasta honekoak nonbait. ZORIONAK BIOI!

Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar



Jesús Mari Montiel

ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK

Artekale 3.

Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

Maiteminduen eguna ospatzen dozu?

Maiteminduta zare? Ze da maiteminduta egotia?

Maiteminduen eguna oiño hilian dala ta, pentsau dou egokixa dala maiteminduta darenak ta ez darenak egun hori ospatzen daben jakitzia. Maitasunan gaiñian ze eritzi daken be kontau dozkie jentrebistetakuek.



Ikaslia (18 urte)

Nik ez dot maiteminduen eguna ospatzen, maiteminduta ez naolako, baiña eongo banintza ospatuko neuke. Batenbatengana sentitzen dozun apreziua moduan da maiteminduta eotia.



Etxekoandria (32 urte)

Ospatzeko egun polita da. Momentuan maiteminduta nao. Neretako maitasuna bi pertsona elkarrekin ondo eruatia ta konprenditzia da.



Etxekoandria (65 urte)

Guk ez dou egun hori ospatzen, baiña egunero ta gero ta gehixau gare maiteminduta, urtiak aurrera juan ahala gero ta gehixau gare maiteminduta, gaztetan baiño gehixau laguntzen ta maitatzen ga elkarri oiñ.



Arotza (59 urte)

Egun hori ixa ez dot ospatzen; hala ta be, andriakin gaztetan ezautu nintzanetik maiteminduta nao. Neretzako maitasuna elkarrenganako konfiantzia da.



Abogaua (38 urte)

Ez, normalian ez dot ospatzen; hala ta be, batzutan eitten dotzat oparin bat andriai. Ni maiteminduta nao, neretzat maitasuna gauza mordua dia, konfiantzia, barkatziã, hasarretzia,... maitasuna salsia da.



Etxekoandria (60 urte)

Nik maiteminduen eguna ez dot ospatzen, nahiz ta maiteminduta egon. Hori egunoi ez ospatu arren bardin bardin ospatzen dou maiteminduta nao. Neretzako maitasuna bestia asko gura izatia da.

**IBAIBA-
RRIAGA**
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

GRUPU
IFA

Produkturik
onenak, prezio
onenean

Tel:
76 80 98.

ALDI

**M^A Karmen
Lentzeria**

Lentzeria eta
kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.
Tel: 789040

♈ Aries: Hire lagun bati esker aspaldiko karga haundi bat kenduko dok/don.

♉ Taurus: Laster heduko jatak/n itxoiten haon erregalua.

♊ Geminis: Ez dotzek lagako barre eitten, oiñtxe arte eiñ duan moduan ezta?

♋ Cancer: Ezingok/ezingon hire barria gorde, nahiz ta disfrazau.

♌ Leo: Bizkor konturatuko haiz. Ez habil bide onian. Badakik/badakin ze eiñ.

♍ Virgo: Ezer eitteko gogo barik egongo haiz, badakik/badakin, ez eiñ ezebez.

♎ Libra: Denbora libria bizitza kulturala eitteko erabiliko dok/don.

♏ Escorpio: Asko pasiau biharko dok/don eure burua distraitzeko.

♐ Sagitarius: Hartuemon sexualak eukitzeko goguak desagertuko jatazak/n. Animo ez dok/don azkena.

♑ Capricornius: Dana ondo urtengo jatak/jatan, hik kriston exitua eukiko dok/don.

♒ Acuarius: Hire problemei ospa eiñgo dotzek/dotzen baiña bueltan gogorrau etorriko jatazak/jatazan.

♓ Piscis: Hire trankilidadiakin danak aho zabalik lagako dittuk/dittun.

Garbiñe Ormaetxea Haur zaintzaillia (28 urte)

- Zetan eitten dozu lan? Umiak zaintzen.

- Noiztik hemen lanian? 11 urtian.

- Ze eitten dozu zure lanian? Etxeko lanak eiñ, bazkaixa gertau ta holako gauzak.

- Gustora zare dakazun lanarekin? Bai, baiña lan hobia

gustauko jatan eukitzia.



Txikitan ze nahi ziñuan izatia?

Gauza asko, andereñua, ...

- Umiak zain-tzenko errezetia?

Ez dao errezetaik, hori eiñaz ikasten da.

- Ze etxeko lan eitten dozu gustoren?

Bazkaixa gertau. Eta zeinek amorratzen zaittu gehixen? Plantxiak.

- Bizitzeko basarrixa ala herrixa? Basarrixa.

- Basarritik gehixen gustatzen jatzuna? Eoten dan pakia.

- Ezagutzen dozu hiruortza? Sardia, bedarra traktorera botatzeko, satzak etartzekoda.

- Animalixaik gustokuena? Txahal txikixa.

- Ze eiñ dozu gabonetako oporretan? Deskansau.

- Aurreko urteko juergarik onena nun? Ez dao bat espeziala, juerga danak izan dia onak.

- Ze erropa eruan bihar da zapatu gabian ligatzeko? Ez dot uste ezer espezialik bihar

danik.

- Homosexualak diskriminauta dare? Bai.

- Ze musikakin identifikatzen za? Euskal musikiakin.

- Kanturik gustokuena? Itoitz-en "Lau teilatu".

- Dantzan parejiakin ala barik? Parejiakin.

- Erretzen dozu? Ez.

- Ze falta da Elgetan? Daon moduan ondo dao.

- Ze hiru gauza eruango ziñuke irla batera? Liburua, musikia ta inportantiena mutila.

- Ze kolorekuak dia zure oheko izarak? Azulak.

- Ze eskatzen dotzazu urte barrixai? Nobixua.

Berezitasuna:
Buztana. Pintxo gozoak, otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JAETEXEA

tel:768284

OSTATU
JAETEXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.
-Karta.

UME HARROPUTZA

Gabonak ziren ia eta ume harroputz batek zera esan zion bere amari:

-Gabonetarako hegazkin bat nahi dut!

Amak erantzun zion:

-Hori ezinezkoa da seme!

Gainera aurten Karibera joan gara eta ez daukagu diru askorik!

Bitartean Olentzero, albarka berrien bila zebilen eta abere denda baten ondotik pasa zenean esan zuen :

-Joño, bai txakurkume polita! Seguru Jon harroputzari atsegingo zaiola. Dendara sartu eta esan zion Olentzerok dendariari:

-Zenbat balio du txakur txiki horrek?

Dendariak erantzun zion:

-Bi milioi pezeta.

Olentzerok esan zion:

-Hainbeste? Beno, berdin da Joni gustatuko zaio eta hau erosiko diot. Honetaz gain zintzotasuna eta alaitasuna opari-

tuko dizkiot.

Gabon egunean, opariak ireki orduko alaitasuna eta zintzotasuna zituen. Horretaz gain txakur txikia ere ikusi zuen eta esan zuen:

-Pottolo izena jarriko diot!

Eta handik aurrera Jon ez zen harroputza izan eta denak zorientatu bizi izan ziren.

Elgetako Herri Eskola
4.maila 9urte
Iraitx Lazkano

GABONAK

Bazen behin herri txiki bat. Bere biztanleak oso pozik zeuden laster gabonak helduko zirelako. Jendea prestatzen hasia zen gabonetarako. Hango ume batek, Iban izenekoak esan zuen:

-Zergatik ez gara mendira joaten pinu baten bila?

Eta denek erantzun zuten:

Oso ideia ona da, baina non ipiniko dugu?

-Ba... Plaza erdian.

Maitek esan zuen:

-Horretarako aizkora bat beharko dugu, nik eskatuko diot nire aitari.

-Bale. -Erantzun zuen Ibanek.

-Eta noiz joango gara?

-Gaur arratsaldean.

Arratsaldea heldu zenean Iban, Maite eta beste guztiak joan ziren mendira.

Mendian pinurik politena hartu zuten. Eta pinuarekin oso pozik etorri ziren herrira.

Maitek esan zuen:

-Baina pinua bakarrik oso triste geldituko da eta argiak eta gezuriezko Olentzero bat ipintzen badiegu zer iruditzen zaizue?

-Oso ongi. Erantzun zuten denek.

Bakoitzak aurreztuta zeukan diruarekin, Olentzero egiteko materiala eta argiak erosi zituzten.

Dena egin zutenean plaza erdian ipini zuten. Bertako biztanleak plaza erdian hori ikustean oso pozik jarri ziren.

Eta gabon egunean denak pinuaren inguruan gabon kanta abesten hasi ziren. Jendeak gabon jaietan oso ondo pasatu zuenez, ordutik aurrera urtero berdin egiten jarraitzen dute eta baita oso ondo pasatu ere.

Elgetako Herri Eskola
5.maila 10 urte
Iratxe castaño

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola

VIVO
Janari
denda

Larunbatetan eta igandeetan bertako
babarrunak, saiheskia erreta.

tel:768273

ERDIA
HARATEGIA
ASTA

Sa. R. ke 6
Tel: 768168.

XABI BERRIEN DESIOA

Bazen behin Xabi deitzen zen bume bat. Xabiri asko gustatzen zitzaizkion gabonak baina bere desio bakarria Olentzero ikustea zen.

Hiru egun bakarrik falta zirenean Gabonetarako, Xabi urduritzen hasia zegoen eta amari galdetu zion:

-Ama, noizbaiten ikusiko al dut Olentzero?

-Lasai Xabi, Olentzero urterotik ikusten duzu eta. -erantzun zion bera amak-

-Ama, beti berdina esaten duzu. Asper-asper eginda nago, nik benetakoa Olentzero ikustea nahi dut. -Erantzun zion Xabik- Gero, bere logelara joan eta pentsatzen hasi zen "Betik Olentzero berdina dator eta gainera gezurrezkoa da, nik benetakoa ikusi nahi dut!"

Hurrengo egunean Xabi kalera joan zenean bere lagun guztiak hitzegiten zeuden eta batek esan zion:

-Zer eskatu behar diozu Olentzerori?

-Nik oraindik ez dut eskatu ezer ere ez. -erantzun zuen Xabik-


-Oraindik ez duzula eskatu ezer? Gaixorik al zaude? Bi egun falta dira bakarrik eta oraindik ez duzula ezer eskatu?

-Ba ez, nik nahi dudana guztiak bakarrik Olentzero ikustea da, baina ez da posible izango - Esan zuen Xabik-

-Olentzero! -jarraitu zuten bere lagun guztiak urterotik etortzen da eta.

-Bai, baina hori gezurrezkoa da eta nik benetakoa ikustea nahi dut, BE-NE-TA-KO-A! Erantzun zion Xabierrek.

Arratsaldean Xabi Olentzerori idazten hasi zen:



Hurrengo egunean Xabi oso urduri zegoen, arratsaldean Olentzero noiz etorriko zain zegoen, benetakoa Olentzero. Argi bat ikusten zen urrunean eta Xabi pozez zorutzen zegoen:

-Hor dator Olentzero!


Xabik ongi igarri zuen, han zetorren eta plazara heldu zen:

-Kaixo gaztetxoak, Olentzero heldu da, lasai egon.

Xabi konturatu zen urterotik etortzen zen Olentzero zela eta hain triste jarri zen etxera joan zela. Gauean ez zuen afaldu eta ohera joan zen. Berandu zenean denak lotzeudela Xabik hots arraro bat entzun zuen eta jaiki egin zen zer gertatzen zen ikustera. Orduan bai, orduantxe han ikusi zuen benetakoa Olentzero, egiazkoa zen, baina Xabi berarekin hitzegitera zihoala Olentzerok esan zion:

-Xabi, ezin naiz zurekin hitzketan gelditu beste umei opariak banatu behar dizkiet, baina lasai, datorren urtean hitzegingo dugu. Agur:

Xabi ohera joan zen eta goizean esnatzean, arhola ondora joan eta eskutitz bat irakurri zuen. Han ipintzen zuen hurrengo urtean bera izango zela plazara joango zena. Xabik ametsa zela pentsatzen zuen, baina hori ikusteko datorren urterarte itxaron beharko zuen.



Elgetako Herri Eskola
Paula Larrañaga eta
Ainara Arantzabal
6. mailakoak

Kartetan jokatzeko giro egokia

Kopa bat

Tel: 768093

Patxi Taberna

HAIZEA

TABERNA

giro atsegina lagunartean egoteko.

Tel: 768256

NON DAIDE OLENTZEROREN OPARIAKO

Urtero bezala iritsi dira gabonak, mendi kaskoak elurrez zuriturik daude eta hotz haundia egiten du. Hori dela eta familia guztiak etxean daude hotzarengandik babestuta epel-epel sutondoan.

Denak oso gustora daude Olentzeroren opariak hartzeko. Bitartean, Olentzero, mendian ikatza egiten ari da neska-mutil gaiztoei emateko. Baina, Olentzero, gabonak direla ahaztua dagoenez azken orduan hasi da eskutitzak irakurri eta opariak prestatzen.

Abenduak 24a iritsi da. Olentzerok erregalu guztiak prest ditu gauean banatzeko. Baina, Jon, Elgetako ipotxak, opari guztiak berarentzat nahi dituzenez, Olentzeroren etxera hurbildu da isil-isilik. Olentzero ohar ez zedin, ez da atetik sartu, leihotik baizik. Jonk Elgetako neska-mutilen opari guztiak hartuta etxera joan da tximista bezain azkar. Opari denak begiratu ditu, oso gustora dago hainbeste jolasekin: liburuak, partxisa, baloiak, e.a. Zer ez dago han!

Olentzerorentzat, heldu da opariak banatzeko garaia, telebista itzali eta badijoa oparien bila. Sutondora hurbiltzean, ez du ikusten Elgetako neska-mutilen opari bat bera ere, zoroen pare bila ibili ondoren, Bergara, Antzuola eta beste herri guztietakoak bazitueenez, haietxek banatzen hasi da. Hau opari pila dagoena zaku barruan: panpinak, patinak, pelotak, puzleak,

etab. Baina erregalu guztiak ez dira onak, han tartean, badago ikatz pusketa bat ere, Antzuolako Olariarena, oso gaizki portatzen da eta, beti gaizokerietan baitabil. Elgetako lagunekin geratu da Olentzero, afaritxo bat egin dezaten. Beizu haserriko Martin ez dago gustora Olentzerorekin, Uruburuko Pedro Mari eta Josefina ere ez daude gustora, beraien seme-alabei ez baitiete oparirik ekarri, sikiera ikatza ekarriz gero... Oleiko Josepa berriz oso gustora dago, Jon, Olentzero-opari askorekin baitago. Olentzero esplikazioak ematen hasi da "Bai, ba... ikatza egiten ari nintzela, lapurtu..." esplikatu du nola lapurtu dizkieten erregaluk.


Petra, susmo txarrak hartu eta etxera joan da tximistak bezala. Etxera sartzean Joni jesukriston erretolika bota dio, hori txapa. Jon azkenik negarrez hasi eta bera izan dela lapurra aitortu du. Bere amak, opari guztiak Elgeta guztian zehar banatzeko agindu dio, berea barne noski, zigor bezala.

Eta han ibili da opari guztiak banatzen, kalean gora eta kalean bera zoroen pare. Denak banatu ondoren Olentzerorengana joan da oso goibel baitago opariak ezin izan dituelako banatu eta bere lagunak haserretu egin direlako. Atea jo du, "t o k - t o k", Olentzerok pasa-

tzeko baimena eman dio eta guztia hasieratik bukaerarte kontatu dio sutondoan epel-epel zeudelarik. Barkamena eskatu dio, Olentzero ulerkorra izan eta barkatu egin dio baina, lehenik zin egin behar izan du ez duela sekula santan horrelako bihurrieriak egingo. Segidan algarra ederrak egin dituzte txisteak kontatuz eta txorakeriak esanez.

Seguru Jonk ez duela sekula horrelako gaiztakeriak egingo.

Migel Altuna Ikastetxea
2. D.B.H 13 urte
Iñaki Astigarraga



ANA LIBURUDENDA



Zatoz beste dimentsio batera!

Tel: 768078

EROSLE



M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190



**KONTXI
ARRANDEGIA**

Salbador 5 Tel: 768009

BUZTANA SALTSAN

Sukaldariak: M^a Asun Arruabarrena eta Arrate Olaortua
(Bolatoki Taberna)



NOLA PRESTATU:

-Alde batetik, olioa berotu kazola batean eta kipula txiki-txiki eginda bota. Gorritu artean utzi; bestaldetik, zartagin batean berakatz aleak buztanarekin batera gorritu ondoren kipula dagoen kazolara bota.

-Barazkiak (azenarioa, zerba kertenak, tomatea) txikituta okela saldarekin batera buztanari gehitu. Zaporea hartu eta bigundu dadin 3 ordutan sutan laga.

-Azkenik, buztana beste kazola batera pasatu gelditzen den saltsa iriztontzitik pasatzeko. Dena xehe-tutakoan buztanari gainera bota. Ondo berotutakoan jateko prest egongo da.

OSAGAIAK: (4 pertsonandako)

- 3 buztan
- 4 kipula
- 3 berakatz
- 4 azenario
- 2 zerba kerten
- Tomate bat
- Litro 1 okela salda
- Oliba olio (gradu batekoa)
- Gatza



GOMENDIOA: -Buztana mamitsuagoa egoteko bezperan egitea komenigarria da. Jangaia asentatuagoa geratzen da modu honetara.


-Janari honi lagun egiteko markako ardo beltza izango litzateke aproposena.

LENIZ

AUTO ESKOLA

Arana, 13 Tel: 714186
ESKORIATZA

Aldai, 9 Tel: 794604
ARRASATE



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokela eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

FINALERDIETAKO SAILKAPENA INOIZ BAINO GARESTIAGO

Aurten jokatu duten talde berriak kontutan hartuz, finalerdietarako txartela lortzea azken urteetan baino zailagoa izango dela pentsarazten du. Azken denboraldi hauetan talde batzuentzako sailkatze fasea "tramite" hutsa zen, ezusteko handirik egon ezean oso zaila baitzen betiko hiru edo lau taldeak ez sailkatzea. Aurten apuntatu diren bi talde berriak kanpokoak dira. Talde bat Angiozartik datorkigu eta lehen bi partiduetan erakutsitako mailagatik txapelketa irabazteko faboritoen artean dagoela esan daiteke. Talde honetako zenbait jo-

kalari askorentzat ezagunak izango dira ziuraski, orain dela lau edo bost urte txapeldunak izan baitziren.

Beste taldea Durangokoa da. Beharbada hauek ez dira azken sailkapenari begira kontutan hartzekoak baina finalerdietarako sailkatzeko taldea dutela dirudi.

Gauzak nola dauden ikusita litekeena da urtero finalerdietarako sailkatzen zirenetako talde bat edo beste hauetatik kanpo gelditzea. Printzipioz sei talde izango dira finalerdietarako txartelen bila arituko direnak baina H.H.H. eta Luzelektrikanpalu ezin ahaztu.



Aurten bi talde berri izango ditugu lehian.

Talde	J	I	B	G	P
Angiozar	2	2	0	0	4
Txapela	2	2	0	0	4
Bar Paseo	2	1	0	0	2
Urien	2	1	0	0	2
Alferrak	2	1	0	0	2
HHH	2	0	1	0	1
Patxi Taberna	2	0	1	0	1
Luzelek.	2	0	0	0	0

SASKIBALOIAN ERE FINALERA



Orain eskubaloian jokatu beharko dute.

Elgetako gaztetxoek ez dute inongo areriorik. Aurreko batean saskibaloian jokatzeko futbitoarekin alderatuz ez zitzaizela gustatzen aipatu bagenuen ere, lortu duten emaitzak ikusita bestelakorik ere pentsa daiteke. Jokatu dituzten bost partiduetatik denak irabazi dituzte eta batzutan izugarritzko jipoiak emanez (partidu batean laurogei puntu baino gehiagoko aldeaz irabazi zuten). Horrela bada, Bergarako jaietan jokatu diren

finalerdietarako sailkatu dira, bai futbitoan eta baita saskibaloian ere. Beharbada Estampaciones Elgetak norbait fitxatzea pentsatu beharko luke.

Orain hilabeteko atsedenaldira izango dute eta datorren hilabetearen eskubaloia txapelketa jokatzeko hasiko dira. Espero dezagun orain arte lortutako emaitzak hobetzea edo behintzat berdintzea (hobetzea ezinezkoa da).

Eskubaloia txapelketa amaitzean pilotakoa hasiko da.

itzulpenak
lanak ordenagailuz
interpretari lanak
transkripzioak



Tel: (94) 6583017 - 6821294

ELKORO TORLOJU LANTEGIA
DEKOLETARIA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203


ESTAMPACIONES ELGETA BIGARREN EIBARREN

Hamahiru jardunaldi jokatu ondoren Estampaciones Elgeta bigarren postuan aurkitzen da Eibarren jokatzeko den txapelketan. Orain arte jokatu-

ko partiduetatik bi besterik ez dituzte galdu eta beraz finalean sartzeko aukerak bertan dirau. Galdu dituen bi partidua lehen eta hirugarren sailkatuaren aurka izan dira. Finalerako txartela lortu nahi badute bi hauetako bat atzean utzi beharko du, bigarren itzulian beste talde guztiez aparte noski.

Estampaciones Elgeta aurtengo txapelketan erakusten ari den joko maila beste urtetakoaren antzekoa dela esan daiteke. Partidu batzuk oso onak egiten baditu ere, beste batzuetan erakutsitako mailak asko jeisten du azken denboraldiako irregulartasuna erakutsiz.

Aipatzekoa da bestalde, ekipoko "gazteak" ematen ari diren maila. Gorka eta Julian beste urte batzuetan izan ez duten garrantzia hartzen ari dira eta etorkizunera begira oso positiboa izan daiteke. Bi gazte hauen aportazioari besteen lana gehitzen badiogu baikor ager gaitzke.



Sergio, taldeko jokalaririk altuena.

ELKORO ESKUZ BINAKAKO FINALETIK KANPO

Ia bi orduz (111 minutu) eta 1181 pilotakada jo ondoren Elkoro eta Nagore binakako Espainiako txapelketako finaletik kanpo geratu dira.

Elkoro eta Nagorek bigarren partiduan garaipena eman zien taktika bera erabiltzen saiatu ziren, hau da, pilota atzeratu eta Lasa III.aren hutsa itxaron. Ez zen horrelakorik gertatu Lasak oso ondo erantzun zuen Elkoro eta Nagorek bidalitako pilotakadetan. Gauzak horrela, hamalauna berdindu zutenean ez zen argi ikusten zein bikotek irabaziko zuen partidua. Momentu horretan Aitorri eskuin eskuko kallua zabaldu egin zitzaion eta ezin izan zuen ordurarteko nagusitasuna mantendu. Hamalaunako berdinketatik hogeigarrena kartoiraino joan ziren Lasa eta Retegi eta partidua erabakita gelditu zen. Azken emaitza 22 eta 16koa izan zen. Lasa III.ak eta Retegik Zezeaga eta Eugi izango dituzte aurrez-aurre Gazteizko Ogeta pilotalekuan.

Orain Aitor banakako txapelketa prestatzen hasi beharko da, nahiz eta bere partaidetza ziurra izan ez.

**Publizitaterako
eta oharretarako
deitu telefono
honetara:
78.90.85**

Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina

IAPAM

Soldadura homologatuak

Hoditeria Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Itxurak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire
girotua.**



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

M^a
ESTHER
Tel: 76 81 67



6 baserri ezagutuko ditugu ale honetan. Ia herri barruan badaude ere, interesgarriak dira ezagutzea eta bertakoen berri izatea. Argazkian dagoen baserri a Antzutei da.

HERRI INGURUAN

Aurreko aleetan inguruko auzoetara joan izan gara bertako berri emateko. Oraingoan berriz herria inguratzen duen baserriez arituko gara. Hemen aipatzen diren baserriak baino gehiago ere izango ziren garai batean baina orain herrian bertan daude integraturik. Etxe hauek jadanik galdu dute baserri izatearen funtzioa.

Herri inguruan dauden baserriok bi auzotan daude banatuta Uriburu aldean, Miztegi eta Uriburu daude. Antzuategi auzoan berriz, auzoaren izena duten bi baserri gain, Pagatza eta Ikatzarre.

Uriburu auzoa

Miztegi baserriari buruzko lehenengo idatzizko erreferentziak, 1771. urtekoak dira. Baina baliteke izen bera zuen etxe baten gainean eraikita gotea. Etxe honi bu-

ruz dauden datuak 1625. urtekoak dira eta badirudi gaur egungo baserria etxe horren gainean eraikia izatea.

Izenaren jatorria ertaroko Mariza izan daitekeela uste da.



Mirenek erakutsi zigun ogia nola egiten den. Hemen ikusten dugu "eromaixaren" ondoan.

Uriburu baserriaren erreferentziarik ez dugu aurkitu, baina bai ordea izen bera zuen etxe bati buruzkoa. Etxe honen erreferentziak 1625. urtekoak izan daitezke.

Antzuategi auzoa

Antzuategi auzoaren izena "Santxoren e-txe"-tik dator. Auzo hau Intxortaren magalean kokatzen da herrira begira. Auzo honetakoa da Salbadorko ermita.

Salbadorko basiliza 1740an eraiki zen. Baina orain dela gutxi jardun dute konpontzen auzo lanean. Basiliza honetan Urangak egindako koadro bat egon zen. Bestetik aldarean zegoen lientzo bat guztiz galdu da. Ermita honen aurretik igarotzen da Elgetatik Angiozarrera doan herri bidea.

Hasieran esan dugun bezala lau baserrik osatzen dute Antzuteiko auzoa. Hauetako

beste bat Pagatza baserria da. Lehenago zelaiez inguratuta bazegoen ere, gaur egun Pagatzako industrialdean dago barneratuta. Basarri honen izenaren jatorria pagoaren ezkurretik dator.

Antzuategi izeneko baserrietako bat, hain zuzen ere ur depositoaren alboan dagoena, urte batzutatik hona zeharo aldatu da. Makina bat berriztatze lanen ondorioz etxe hau zeharo dotoretuta aurkitu genuen.

Goiz Argi da auzo honetan eraiki den etxerik berriena.

Ikatzarren "ogiginan"

Ikatzarre baserrian ogia egiten zutenaren berri bagenuen eta jaten dutenen artean oso preziatua zela. Gu ere ogi goxoaren usainari jarraituta bertaraino hurbildu ginen. Miren eta Maximo orduan ziren etxeratuak baserriko lanak amaituta. Bien artean erakutsi ziguten nola egiten dituzten astero-astero ogi goxoak. Maximon esanetan "Miren da titularra lan honetan eta ni aiudantia".

Ogia egin aurreko gauean Mirenek legamia prestatzen du. Bitartean Maximok astean zehar prestatu duenegurra sartzen du la-



Jose Luis Markiegik lan bikaina egin du baserria berriztatzen. Baserria zeharo dotoretu du eta inguruak ere ederki txukundu ditu.

bean; pinua erabiltzen badute ere, egokienak pagoa eta haritza direla esan zigun Maximok. Goizeko 5etan sua piztu ondoren, ore prestatzen hasten da Miren. Horretako "eromaixan", bezperaz egindako legamia nahasten du irinarekin eta urarekin.

Mirenek azpimarratu zigunez, garrantzitsuena lan guztian hauxe da, ondo nahastea. Berak ordu erdi inguru behar du dena ondo nahasteko. Ondoren ore ordu be-

tez uzten du manta batekin tapatuta "eromaixaren" barruan.

Bitartean labea bero dago eta Maximok egurrak uzten duen txingarra labean zehar banatzen du.

Orea prest dago ordu bete ondoren. Orain zatitu egiten du kilo eta kilo eta erdiko zatitan. Labera sartu aurretik, arrautzarekin kolorea ematen zaie ogiei.

Dagoeneko prest daude labean sartzeko. Han ordu bete justu behar izaten dute ogiek egosi eta kolorea hartzeko. Aspaldiko labea dute sukaldean. Bertan eta astero 25 ogi egiten ditu Mirenek.

Ikatzarre baserriaren izena garai batean ikatza egiten zelako ipini omen zitzaion, dena den Maximok ez du honen berririk. Baina ondotxo daki nola egiten den ikatza. Berak egin izan du baserrian ikatz txondorra.

Egunen batean agian animatuko zaigu Maximo ikatz txondorra nola egiten den erakustera.





Ia herri barruan dago Uruburu baserria. Hementxe jaioa eta hezia pelotako atzelaririk onena Aitor Elkoro.

LEHIAKETA

Aurreko alekoa ez da makala izan. Modan dago ordenagailu hitza eta erantzun gehienak hari horri tiraka etorri dira. Kartak beste erantzun oker jaso dugu erredakzioan.

Bazuen erretratu honek tranpatxoa. Hankazgora jarri genuen eta hortik etorriko ziren ordenagailuaren antza hartu diotenen erantzunak. Gehienak oker. Telefonoa zen erantzun beharrekoa eta zin egiten dugu nahikoa buruhauste ematen dizkigula aparailuak. Notizia onak baino gehiago txarrak jasotzen ditugu eta buruhausterik handiena ordaintzeko orduan izaten da. zuen etxeetan era bai ezta? Telefonika aberastuko da gure kontura.


Erantzun zuzenen faltan eta erantzun kopuru handia ikusita karta bidali duzuenon artean zozketa egitea erabaki dugu nahiz eta erantzun zuzenik ez izan. Zozketa horretan irabazlea **Maite Retolatza** izan da. Karta idazte hutsagatik joango da berak nahi duen lagunarekin afaltzera. Oraingo honetan Panaderokua jatexera. Oraingo alean lehiaketa bestelakoa izango da. Non dagoen erraza da igartzea baina, ze neurri du? Zenbat zentrimetro? Gehien gerturatzen denak izango du afaltzeko aukera. Animo! Idatzi **Goibekokale**ra.



Goibekokale aldizkarira
Salbador kalea 2 Kultur Etxea
20690 Elgeta

Izena eta abizena: _____
Erantzuna: _____
Bizilekua eta telefonoa: _____

KOMIKIA





Argazkia: Juan Mari Arantzeta.

Pilota txapelketako irabazleak

Gaur egun ere jokatzen da Deba bailarako pilota txapelketa. Erretratuan duguna 1966ko uztailaren 3an dago aterata. Soraluzen jokatu zen urte hartako finala. Bertan bikote garailea eta jarraitzaileak daude. Bikotea Juan Mari Arantzeta elgetarrak eta Berrizko Goiuriak osatutakoa da. Baina nola Deba Arroko txapelketan berriztarrak? Galdera luzatu diogu Juan Mari Arantzetari eta bai orduan eta bai gaur egun ere partehartzaileak ez daukala zertan Deba Arrokoa izan erantzun digu. Euskal Herritarra izatea nahikoa omen da bertan jokatzeko.

Ia txapelketa honek beste urte askotan zehar aurrera jarraitzen duen, horrela hemedik urte batzuetara gaur egungo garaileen erretratua aldizkari honetan atera ahal izango dugu. Animo txapelketa honetan parte hartuko duzuenoi eta baita antolatzaile guztioi ere. Segi horrela urte askoan.

Erretratuko enizen-abizenak:


Goialdean: **Jose Antono Mendikute, Jose Mari Gorrotxategi, Migel Saratsua, Goikuria, Anastasio Arantzeta, Juan Mari Arantzeta eta Juan Jose Arantzeta.**

Hurrengo biak: **Jose Mari Arantzeta eta Sabino Gallastegi.**

Belaunikatuta: **Tomas Arizmendiarieta, Fernando Arantzeta, Jose Arantzabal, Antonio Iturrigastelu, Felix Irazabal, Santiago Arantzabal, Alejandro Arantzeta, Iñaxio Elorriaga, Jose Antonio Gorrotxategi, Jabier Arantzeta eta Kandido Bolinaga.**




**Egoitz Elortza
Txurruka**




Familiak lerro hauen bitartez eskertu nahi dizue hartutako doluminak eta hileta elizkizunera joan izana.

Egoitz Elortza Txurruka



*Gurekin ez zauden arren,
beti izango duzu lekua
gure artean.*

Elgetako Gazte Asanblada



LILURA

Edertze Institutua


DEPILAZIO PROGRESIBOA

- Akabo ileak!
- Aste gutxitan antzemango duzu diferentzia.
- Uda honetan eroso eta seguru sentitzeko.

Has zaitetz oraintxe!

Informazio gehiago, 76 31 71 Telefonoan.
Bidekurutzeta 7 BERGARA

Argitarapen honen edizioko laguntzailea



kutxa

fundazioa
fundación

2 URTE JARRAIAN GUREKIN